

Hamarkada bat betetzen du aurten Jai Toki Kultur Elkarteak. Hamar urte hauek nolabait deskribatu behar badira, distiratsua izan direla esan beharko zen, baina ez foku edo argiek eragiten duten distirei keinu eginez, benetako distirei baizik, bihotzek ematen duten distirei jarraituz eraikitako bideari hain zuzen.

# JAI TOKI: BIHOTZ ANITZ ETA IZAR BATEN DISTIRAK

Julen Nieto Gonzalez

Inauteriak  
aurkezpena.



**S**eguraski duela hamar urte inori ez zitzaion burutik pasako gaur egun egutegian horrenbeste data koloreztaturik izango zituztenik. Izan ere, familia giroan jaiotako talde txiki bat besterik ez zen, hurrengo Inauterietarako zerbait prestatu nahian aritzeko asmoarekin sortuta. 2008ko uda zen neba-arrebek gurasoei miresgarri bihurtu zen galdera egin zietenean: "Si el año que viene el cole no hace carnavales, ¿por qué no los hacemos por nuestra cuenta?". Eta esana izana

bilakatu zen. Urriaren 11n hogeitabi lagun elkartu ziren Merkatuzarreko balioanitz gelan 2009ko inauteriak prestatzen hasteko. Neba-arrebek etxeko musika aparatua hartu, lagunak elkartu eta norantz eramango zituen ez zekiten bideari ekin zioten. Mozorroak erosi, dantzak prestatu, ezagun batzuei erremolkea eskatu eta ia konturatu gabe Inauteriak bertan ziren; eta han agertu zen koadrila hau, poliziaz jantzita lapurrak preso zituztelarik. Inauterien ostean askari bat ospatu



10 urteurrenaren erakusketa.

zuten bere barnean aurkako sentimenduak nabaritzuz: hain gogotsu itxaron behar izan zituzten egun haiek primeran igaro zirelako poza azkarregi amaitu zirelako penak itzaltzen zuen. Ordurako baten batek zalantzan zebilen: “¿Y vais a volver a salir el año que viene?”. Baina beranduegi zen jada ezezko erantzun bat emateko, Inauterien atzapar koloretsuekin goitik behera itsututa gelditu baitziren. Horrela sortu zen Jai Toki Kultur Elkarte, latinetik datorren “Furius” izenarekin aritu zen talde horren arduetara egoteko.

Geroztik, barraka honen arduetan ibili den familiak gogoz, gustura eta, batez ere, ilusioz beterik lan egin duela ziurtatzen dute handik aurrera emandako sekulako aldaketek. Neba-arrebek pentsatu, gurasoek indartu, eta beraien ideietan sinisten zuten gero eta lagun gehiago topatuz, talde hau broma bat ez zela azkar utzi zuten garbi. Pausoz-pauso, poliki-poliki, aurrera egiten ari zirela somatu gabe, hamar urte eta gero atzera begiratu eta harro egoteko moduko bidea egin dutela aipagarria da oso. Proiektu berri bat prestatu eta amaitu bezain pronto,

hurrengorako gehiago eta hobeto egin nahi izatearen esklabu zirelarik aurkitu zuten bizipoza. Aurten bere hamargarren urteurrenaren inguruan zerbait berezi prestatzeko gorriak ikusi dituzte gaur egun duten egutegian hutsune egoki bat bilatzeko. Inauteriak, auzoetako jaiak, zaharren egoitzak, Madalenak, gabonetako jaialdia, Errege Kabalgata, Olatu Talka, Elkartasunaren Motorra edo Emakumeen Eguna dira, besteak beste, emanaldi, entsegu, antolaketa edota prestakuntza lanekin larunbatero eta igandero elkartzera eramantzen dituzten ekitaldiak, urtean zehar ehundaka pertsona mugitzen eta elkarrekin topatzen. Mugimendu honen guztiaren susturriak familia bereko aita, ama, semea eta alaba ziren hasiera batean.

Pozik hasi zen familia hau bere adiskideei zabaltzen eta barne indarrez sortutako olatu hau sendotzen. Baina biziaren legeak jarraituz, olatua hasi eta hurrengo urtean une gogorak iritsi zitzaizkien. Amak aintzina gainditu zuen minbizia berriz ere atzaparrak erakusten hasi zen urte dexente iraungo zuen borroka berri bat iristear

**Mozorroak erosi, dantzak prestatu, ezagun batzuei erremolkea eskatu eta ia konturatu gabe inauteriak bertan ziren.**



2018 entsegua.



Pausoz-pauso,  
poliki-poliki,  
aurrera egiten  
ari zirela  
somatu gabe,  
hamar urte  
eta gero atzera  
begiratu eta  
harro egoteko  
moduko bidea  
egin dutela  
aipagarria da  
oso.

zegoela ikustaraziz. Horrelako baldintzetan, nolatan mantendu burua osasuna ez den beste edozein gauzatan? –pentsatuko dute askok. Baina miresgarria badirudi ere, gorantz besterik ez du egin Jai Tokik handik aurrera, hasieran jasanezinak zirudien hamaika ekitaldi eta proiektu burutzen. Iaz minbiziaren borroka amaitu egin zen familia honentzat, amak, oraindik gazte, zeruetatik olatuan jarraituko duelako ziur. Baina olatuak sekulako indarra zeraman jada arroka gogor horrekin topatu zenerako, bidean oztopo bat besterik ez balitz bezala salto egiten, inoiz baino gehiago zipriztinduz. Gaur, lau egon beharrean, hiru daude jende borobil handi honen erdian, eta beraientzat Jai Toki, elkarte bat baino, bizimodu bihurtu da.

#### **BERE NORTASUNA DA TALDE HONEN INDARRIK HANDIENA**

Zerk eraman ote ditu hamarkada honetan gaur direna izatera? Bada, egia esan, zaila da eskuzabalki lan egiten duen talde batentzat zerbaiten truke horrenbeste mugimendu sortaraztea. Beraz, askok

misteriotsuagoa eta politagoa den zerbait da honen guztiaren eragilea.

Hasiera batean zeretik hasten eta bidetik oztopo mordoak aurkitzen ezagutu zuten zer den benetan laguntasuna, konpromezua, elkarlana, zer den ekitaldi baten proiektu bakoitzaren atzean dagoen guztia. Une politak, txaloak, irribarreak, lana amaiturik ikustearen harrotasuna,... dira balantzaren albo batean kokatutako zamak, beste alboan konstantzia, konpromezua, oztopoak, azken orduetako arazoak,... daudelarik. Puntu horien guztien oreka aurkitzea ez da erraza, baina oreka horren bila jardutean ikasi eta hazi egiten da, bai pertsonalki, bai talde bezala. Horrela garatu da Jai Tokiren inguruan bere baliorik garrantzitsuena: bere nortasuna.

#### **INAUTERIAK: IZKUTUTAKO MUNDU MAGIKOA**

Kaleetan ikusle bezala aritzen direnentzat, Inauteriak egutegiko beste data bat besterik ez dira, etxetik mozorroturik ateratzeko aukera dutela berezitasun gisa.

Baina ikuspegi hori mundu magiko batera eramaten duen atea besterik ez da. Horrela ikustarazi zioten behintzat, neba-arrebek amari oraindik haurrak zirenean, eta nola ez, ama jai koloretsu honetaz maitemindu zuten. Behin ate hori zeharkatuta, bihotzak ez diela atzera egiten uzten diote, behintzat, gaur Jai Tokiren esku "Furius" konpartsan parte hartzen duten hirurogeitik gorako lagunek. 2009ko Inauterietan hogeitabat atera ziren New York-eko poliziak bezala jantzita. Karroza txiki bat prestatu zuten, bertan lapurrak preso joan zitezten. Erreteriaz gain, Irunera, Trintxerpera eta Altzara abiatu ziren bertako konpartsekin parte hartzera. Horrela ezagutu zuten esandako Inauterien mundua. Hurrengo urteetan, Erreteria alde batera utzi gabe, Donostiako Inauterietan ere parte hartzeko tentaldiari kasu egin zioten, eta apurka-apurka, taldea gero eta handiagoa bihurtzen joan zen. Aurten, bere hamargarren Inauteriak amaitu eta gero, garaipen zerranda dotorea dute Donostian, bai konpartsari dagokionez bai karrozei dagokionez. Esaterako, bitan lortu zuten konpartsa txikien lehen saria, eta azken bi urteetan jarraian konpartsa ertainen lehen saria eskuratzetik datoz, iaz karroza ertainen bigarren sariarekin eta aurten lehenengoarekin batera, hala nola 2014. urtean lortutako Umorearen Sari Nagusia. Donostian urratsa utzi duten Kresala, Bataplán, Los Bebés de la Bulla edo Tantai Loiola konpartsen aztarnak aztertuz, ez dira motz gelditzen.

Zaletasuna sortu dute, beraz, bere ingurugiroan konpartsa honen kideek. Baina familia honentzat, zaletasuna baino gehiago, adikzioa sortzen duen zerbait dute Inauteriak: irudimena. Irudimena da Inauterien arma boteretsuena, urte erdia lan egitera eta beste erdia pentsatzen igarotzera behartzen zaituena. "Zertan oinarrituko gara azken urtekoa hobetzeko?", "Nola egin dezakegu hegazkin, sumendi edo piramide moztu bat?", "Zenbat kide jantziko ditugu partxisarekin eta zenbat xakearekin?",



Inauteriak. Karroza prestatzen.

"Zer behar dugu karroza batean kafeontzi erraldoi bat eraikitzeko?", "Eta jantzi hauei argiak ipintzen badizkiegu?", "Nondik lortu dezakegu egurraren antza duen ehun elastikoren bat?"... Galdera horiek guztiak, garun pentsakor batzuentzat, goxokiak besterik ez dira. Eta diotenez, urtero zure burutik atera den idei sorta bat hilabete dextente landu eta gero kaleetan barrena ikustea, ideia horretan sinistu eta jarraitzen zaituen lagun talde baten babesarekin eta eskualdetik poza nabarmentzen den ekintzetara mugituz zapore goxoa uzten du oroitzapenetan. Eta hori gutxi bada ere, gainera saritua izateak ia droga bat bezala jokatzen du. Behin bizi eta jada ezingo duzu hurrengo urtea iristeko grina ezkutatu.

Horrela sortu dituzte hamar urte hauetan Mexikon, mahai jokoetan, gailletetan edo Pixar filmeetan, besteak beste, oinarritako diseinu, jantzi, dantza, karroza, edota tramankulu mordoa: Mariachi Vargas-en doinuetara mugitzen ziren tekila kupelak, katrinak edo eltze-astotxoak; Tom Jones-en abestiekin iragarkietan bezala gailletarekin dantzan aritzen ziren Maria Fontaneda eta Beckelaer Printzeak; Mike Wazowski, Nemo edo Wall-E pertsonaia ospetsuak Barbra Streisand eta Louis Armstrong "Hello Dolly" filmean imitatzen, West Side

Erreteriaz gain, Irunera, Trintxerpera eta Altzara abiatu ziren bertako konpartsekin parte hartzera.



Story-ko erritmoak jarraitzen zituzten "Tio Sam" eta askatasunaren estatuak, "¿Qué apostamos?" telesaio ospetsuaren abestiarekin dantzatzen zuten partxis eta xake taulak, domino fitxak edota bingo-ontziak,... Gai bat urte bakoitzeko. Hori lortzeko, prozesu desberdin dexente aldi berean kudeatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula: jostunekin jantzi guztiak marrazki batetik egia bihurtu, kide guztiakin entseguak aurrera atera, bolondresekin partaide guztientzako eskuz egindako konplementuak bukatu, karroza bat eraiki bere material eta instalaketa guztiakin,...



Momo jainkoekin plaka jasotzen.

Orduak eta orduak ematen dira bospasei hilabetetan zehar prestaketetan lanetik atera eta etxean goxo eseri beharrean, edota asteburu gauetan tabernetara jaitsi beharrean lanean gelditzen ia biharamuna arte. Prozesu horietan, izkutuan, pilo bat une polit dago, elkartasuna gauza guztien gainetik dagoela erakusten dutenak. Horixe bera da mundu honen magia.

### IRRIBARRE BOTERETSUENAK, GEHIEN BEHAR ZITUZTENEKIN

Inauteriak alde batera utziz, ez dira gutxi haur eta gazteekin egin izan dituzten jolas, ekitaldi eta emanaldiak. 2010. urtean Iztieta-Ondartxok bere jaiak berreskuratu zituen Maiatzaren 1aren ospakizunekin, auzoak jairik gabe zenbait urte igaro eta gero. Talde honen berri izan zuten antolakuntzan zebiltzanek eta ea zerbait prestatzera ausartzen ziren joan zitzaizkien galdezka... Erantzuna aipatu baino, aurtengo jaietan Jai Tokik lau ekitaldi desberdin antolatu dituela da esan beharreko guztia, bata jaiegun bakoitzeko. Aukera hura ez zen beste leiho baten zabalpena baino besterik izan lagun hauentzat. Guar egun herriko hainbat auzotako jaietan partaide finkoak dira, hala nola Gabonetan izaten diren hainbat jaialdietan. Galtzarabordako Kiroldegan ospatzen den Emakumeen Eguneko ekitaldian urte pare bat daramatzate parte



Ongi etorri madalenak 2015.

hartzten ere, eta ongintza helburuetarako sortu zen Elkartasunaren Motorra programa barnean ere parte hartu izan dute dantzan behin baino gehiagotan. Herritik kanpo, gure bizilagunen mugak zeharkatuz Donostian, Oiartzunen, Irunen eta Lasarte-Orian agertu izan dira ere bai.

Baina euren distira, esan dugunez, bihotzen barnetik ateratzen dena da. Ondo dakite bizitzaren itzalak argitzen, eta horrek eraman zituen bere borondatez zaharren egoitza batean agertzera. Geroztik, urtero hainbat egoitzatetik bira oso bat ematen dutela aipagarria da. Izan ere, egoitzetan



Errege kalgata.

daudenek badute kanpotik norbaitek energia eta poza eramatearen beharra. Ez dute ezer eskatzen, ez dira ikusle zorrotzak eta ez dute inor ospetsu bihurtzen, baina beharra duen norbaiti doan ematen zaion alaitasuna ospearean gaintetik dago duda barik. Ezerren truke beregana joan izanak bisitekin jaso dituzten goxoki eta piruletak gozoagoak egin ditu. Ondo gogoratzen dute neba-arrebek nola amak, irribarre egiteko gogo faltan, beste behardunei ateratzen zizkien.

### **GURE HERRIKO HAURREN ILUSIOAK MUGITZEN DITU**

Jai Tokik parte hartzen duen herriko lan taldeen artean, Errege Kalgatak ere indartsu jotzen du. Bertan Jai Tokik eta herriko bi ikastetxek daramate zama, eta urtero konklusio bera ateratzen da bere ahoetatik: borondatea eta gogoia behar dira ekimen hau antolatu eta garatzeko, baina kalgata hasi eta bidean zehar nabarmentzen diren haurren aurpegiak esaten dutena arrazoi nahikoa da egindakoarekin pozik sentitzeko eta hurrengo urteetako martxan jartzeko.

Gutxik jakingo dute zer den ordu eskas bateko desfile honen atzean dagoen lan eta ardura guztia: aurreko urtetakoa aztertu eta hobetzeko abiapuntuak kokatu, jantzien eta materialen inbentarioa eguneratu, eskaera berriak kudeatu, partaideak antolatu, karrozak prestatu

eta horientzako hiru ibilgailu eta gidari bilatu,... Azken finean elementu ezberdin dexente topatzen dira bertan eta denen arteko lotura aurkitu behar da: gurdia, baserritarrak, ikazkinak, trena, antortxeroak, postaria, erregeak,... Horren ondorioz, kalgata egunean bertan betebeharrak zerranda luzea antolatu beharra izaten dute, besteak beste, denentzako aldagelak prestatu, Zumardian eta Biteri kalean segurtasun hesiak kokatu, partaideen askariak banatu edo karroza bakoitzak eraman behar duen guztia daramala ziurtatu. Hau guztia segurtasun arauak bete behar direla ahaztu gabe. Izan ere, azken urteetan gero eta zorrotzagoak bihurtzen ari dira ekitaldi hauentzako araudi guztiak eta horrek kalgata lantzearen prozesua korapilotsuagoa bilakatu du.

Dena delarik, arratsalde adoretua izaten da beti urtarrilaren 5a. Hotzak eta euriak jo izan dute behin baino gehiagotan baina erdiko kaleak jendez gainezka aurkitu dituzte beti Errege Magoekin batera zeharkatu dituztenean. Harro gogoratzen dute dena amaitu eta gero lagun guztiek elkarrekin txokolatea eta erroskoa jaten duten momentua, errege morroiz eta postariz jantzita, batzuk aurpegia beltzez margoturik dutela. Amak ere inoiz ez zion turbantea jantzeari edo beltzez margotzeari mespretxurik egin nahiz eta zailtasunak topatu. Magoak dira gero hiru Errege hauek.



## ONGI ETORRI MADALENAK: “TXUNPA-TXUNPA”REN BESTE IKUSPEGIA

Udaberri, kurtso amaiera, Eguberri eta abarretako jaialdietan gonbidatu gisa parte hartzeko ohitura hartuta, Jai Tokik bere jaialdi propioa izatera eraman zien olatuaren indarrak. Data polit bat bilatzen, Erreteriar guztiok pozik gabiltzan Madalenak hasi aurreko egun horiek aukeratu zituzten. Horrela jaio zen 2013. urtean Ongi Etorri Madalenak jaialdia.

Bere lehen edizioan, beste ekitaldietan topatzen zituzten hainbat talde gonbidatu eta beste helbururik gabe arratsalde polit bat igaro zuten Niessen Kulturguneko antzokian denok denen dantzaldiak ikusten. Baina hurrengo urtean jaialdiak eman zuen jauzia urtero ikusleei zerbait berezia eskaintzen saiatzera eraman zituen. Izan ere, bigarren edizio horretan, emanaldiekin trebetasuna hartzen ari zirelaren ondorioz, aretoa beterik zegoela ikusi zuten teloa igo bezain pronto. Handik aurrera jaialdiari berezitasunen bat bilatzen hasi ziren, eta horrela aurkitu zuten EMTEk 1994. urtean Zentenarioko doinuekin egindako “Txunpa-txunpa” lana. Doinu horiekin moldaketa berri bat egin zuten, koreografia eta guzti, jaialdiko partaide guztiakin batera elkartasunean Madalenei ongi etorria emateko. 2015etik aurrera Madalenetako omenduak izaten dira ere jaialdi honetan partaide guztiakin batera saltoka eta txaloka doinu honi jarraituz. Han jarri dituzte dantzan, hain zuzen, Hibaikako arraunlariak, Andra Mari abesbatzaren ahotsak edo Oinez proiektu sozialeko kideak, Joxin eta Amaia buru zirelarik.

### HAMARGARREN URTEURRENEAN, INOIZ BAINO DISTIRATSUAGO

Gauzak horrela, jaialdi, jolas saio, inauteri, kabalgata, emanaldi eta abarrekin hazi dira talde honetako gazte dexente eta

astero elkartzearen ohitura dute barnean. Atsedenen bat izaten dutenean, laister nabaritzen dute zerbaiten falta... 2018ko urriaren 11n hamar urte beteko dira talde txiki hura lehen aldiz elkartu zenetik. Aurpegi asko aldatu eta gehitu dira taldean hamarkada honetan zehar, eta denetarik bizi dute gaur egungo datara ekarri dituen bidean. Baina nahiz harro bere ohiko egutegi beteta azaldu, aurten zenbait ekintza berezi ere antolatzen ari dira urteurrena ospatzeko. Otsailean erakusketa bat prestatu zuten Xenpelar Etxean, “Furius, hamar urtez distiratsu” izenburupean. Bertan, hamar urte hauetan diseinatu, sortu eta erabili izan dituzten jantzi eta konplementu, dekorazio eta atrezzo elementuak, kartelak edo argazkiak erakutsi zizkieten herritar guztiak, 700 bat bisitari jasoz. Barregarria da behintzat, dituzten traste guztien erdia baino gutxiago erakutsi ahal izan zituztela, aretoan gehiago sartzen ez zirelako. Dena erakustekotan, bi edo hiru solairu beharko zituzketen hain zuzen. Jai Tokirentzat lokal edo gela propio baten faltan, etxeke egongelan, sukaldean, gabaran edota garajeran elkartu dituzte lagunak familia honek zerbait berri prestatzeko esku bolondresak behar izan dituztenean, eta bertan gordetzen dute bere armategi artistiko

Bere lehen edizioan, beste ekitaldietan topatzen zituzten hainbat talde gonbidatu eta beste helbururik gabe arratsalde polit bat igaro zuten Niessen Kulturguneko antzokian denok denen dantzaldiak ikusten.

Entsegua.





guztia, hala nola megafonia aparatuak, erremintak, tresnak eta aparatuak. Horren argazkirik ez zuten, ordea, erakusketan ipini.

Urteurrenarekin aurrera jarraituz, bere ohiko ekitaldietan berezitasun gehiago sartu dituzte. Esaterako, Ongi Etorri Madalenak 2018 jaialdia kalera aterako dute, Xabier Olaskoaga Plaza ikusleentzako aulkiz betetzen; eta Gabonetarako zerbait berezi dutela diote ere urte hunkigarri hau amaiera polit batekin bukatzeko.

Ezin dugu jakin hurrengo hamarkadak zer oparoko dien lagun hauei. Baina ziurtasunez esan dezakegu bizitzak bigun edo gogor jo dezakeela, ez duela sekula geldituko olatu honen indarra. Izan ere, etxe berean sortu eta zabaltzen-zabaltzen, zeruraino ere iritsi da Jai Toki. Adi egon zaitezte, santu eta aingeru, laister zuek ere jarriko zaituzte amak martxan; hemen seme-alabak aitari aspertzen ez diote utzi, eta kide guztiekin gelditu ezinean jarraitzen dute. Bihotz hauen distiren izpietan berarenak jarraituko dute betiko.



Inauteriak Jantziak prestatzen



10 Urteurrenaren erakusketa



Zaharren egoitzak bisitatzen



2018 inauteriak. Karroza prestatzen



Trintxerpe 2009. Talde argazkia



Ongi etorri Madalenak



2017. Lasarte-Orian



DSS. 2016. Inaugurazioa